

Txokolate beroa

Mirari Martiarena

Umetan aditutako kontuak gerora ulertzen dira askotan. Banekien etxe ondoan eskultura bat genuela. Harri txuri handi bat zen. Iku-rriaren bat zuen marraztuta, baina ez nekien zer esan nahi zuen. Guretzat jolasteko leku bat izaten zen: gora igo, bertan dantzatu, salto egin, alde batetik bestera korrika ibili... Goiz batean hurbildu eta txikituta ikusi genuen. Ez genuen ulertzen nola hautsi zen. Nahiz eta umeak izan, bagenekien nahita hautsi zuela norbaitek.

Orduan galdezka hasi nintzen, ea eskultura hori zergatik zegoen hor eta gauzak esplikatu zizkidaten, ume bati esplikatzen zaizkion moduan, noski. Gerra bat egon ze-

la, gure aitonaren familiak baserria utzi behar izan zuela eta gazte errepublikar batzuk sartu zirela gure baserrian eguraldi txarretik babesteko. Txokolate beroa hartzen ari zirela, soldadu batzuk etorri eta baserriaren paretaren kontra jarri eta hil egin zituzten. Beraiek gogoratzeko egin zuten eskultura hori. Haur baten eskema mentalerako informazio asko: gerra, ekaitza, eskultura, soldaduak, txokolate beroa...

1936ko abuztuaren 11n fusilatu zituzten hamahiru gazte Pikoketa baserri zaharreko hormaren kontra. Abuztua izan arren, orduan ere eguraldi txarra egin zuen eta babes bila sartu ziren ukuiluan. Zertaz ari ote ziren hizketan txokolate beroa esku artean zutela? Askotan pentsatu izan dut.

Nolakoa izan ote zen gau hori? Gazteen gorpuak ondoko baso batean lurperatu zituzten eta 1978an atera zituzten gorpuzkinak. Urtero, urri aldera, omenaldia egiten die Irungo Errepublikarrak elkarteak: Mertexte, Pilar, Joxe Mari, Victor, Jesus, Agapito, Bernardo, Manuel, Migel, Bixente, Agustín, Felix eta Anjel.

Memoria historikoaren parte dira eta badu zentzua 81 urte beranduago gogoratzek. Oraindik leku askotan baitaude desagertuak eta eurak omentzeko ere balio baitu. Ez dakit zergatik azpimarratu izan didaten hainbeste txokolate beroa hartzen ari zirela gazteok frankistak azaldu zirenean, baina horixe egin nuen atzo nik ere eurak oroitzuz: txokolate beroa hartu. •

Jaia bakean izan dezagun

Koldo Sagasti

A maituak dira jada aurtengo Gasteizko jaiak eta, urtero legez, balorazioak egiteko tenorean, udal ordezkariak festak bake giroan ospatu direla azpimarratu dute harro. Eta baieztapena ez da guztiz egia. Bortizkeria izan izan da, kontua da biolentzia horrek, akaso alde bakarrekoa izateagatik, ez duela aipamenik merezi izan jai osteko udal balantzean. Aurtengo jaietan ere errepikatua- ren errepikatuaz tradizio bilakatzeko bidean dauden indar polizialen hainbat gehiegikeriaren lekuko izan gara. Abuztuaren 6an, urtero moduan, Ertzaintza oldarka sartu zen txosna gunean kartzelan izateagatik festetan parte hartu ezin duten auzo-

kideen argazkiak bahitzera. Horrez gain, arrazakeriaren aurkako taldeek salatu dutenez, kaleko jantzitako poliziak saltzaile ibiltariei jazartzen ibili dira nonahi, eta kalesaltzaileen atxiloketa baten lekuko izan ziren oinezkoei sakelako telefonoak bortxaz konfiskatu zizkieten. Beste testigantza baten arabera, patruila-autotik jaitsi eta jipoi ederra eman zieten gazte mozkor batzuei uniformedun batzuek, ustez, pasatzean komentario iraingarriren bat egin zietelako. Erasoaren lekukoek protestengatik ihes atera behar izan zuten poliziek.

Jaia jai denetik anarkiarako esparrua izan da beti, arauak haustekoa, baina horrek ez du esan nahi jaiaren aitzakian de-

nak balio duenik, are gutxiago lasaikeria hori oinarritzko eskubideak zapaltzeko baliatzen denean, eta are gutxiago eskubide urratzaileak indar polizialak direnean. Zentzu horretan zer ikasi handia daukagu mugimendu feministatik. Haiek ederki asmatu dute festa esparruetako indarkeria matxista ikusarazten, eta jai giroaren babesean gertatzen diren emakumeen aurkako gehiegikeriei zilegitasuna kentzen. Herri harresi sendo bat eraiki dute jai eremuetan bortizkeriaren aurrean. Akaso berdin jokatu beharko genuke jaiaren aitzakian gertatzen diren beste eskubide urraketa batzuekin; jaia, benetan, bakean izan dezagun. •